

URKABE PUBLIKOAN

Maite Uriarte, 17 urte

Elgoibar

Argi hotzen keinu itsuak.

Gauaren nostalgiaz

errefrakzio ispilua.

Ibaiak lehorrak daude,

argirik ez da ageri.

Denbora urratuz doa

kantoi minberak astinduz.

Hemen,

argia itzali behar izan duen trenari so,

“EXIT” kartelak soilik geratu zaizkio

herensugearen begiradari,

hauts amorratua,

gerizpeko argien ertz.

HEMEN EZ DAGO AMETS EGITERIK.

Eta egin nahi duenari

hegalak mozten dizkiote.

Eroek

egiten dute amets

hemen

Goseak,

egarriak,

hotzak daudenek...

Denbora urratuz doa
Haragi minberak astinduz.

Ugariak dira herensugearen tunelak,
eguzki beltzean luma zuriak beltz.
Argia itzali behar izan duen tren.

Eternitatearen begia tunelaen ahoa da
eta irentsi egiten gaitu,
eta ez du larrosa lurrinik hondoa.

Tunel herria da hau,
hilobien,
oihartzunen,
ezerezaren herria.
Argia itzali behar izan duen tren.

Hilobian sortua dira ederrak larrosak,
Harroak dira larrosak afusilatuen harrobian.
Arantzak patuaren itzalak harrapatuta daude,
PRESO,
Olerkitasunaren itsasoan murgil,
GILTZAPETUTA,
ilunabar argiak balaku,
bizitzaren kantzak min.

EXIT hotzaren keinu itsuak.
Gauaren nostalgiaz
errefrakzio ispilua.

HEMEN EZ DAGO AMETS EGITERIK.

Ene ezpain apurtuen amildegira
hurbilduko bazina,
ikusiko zenuke
ametsek bakarrik lotzen gaituztela
beren betazal itzalien pean,
trenak negar egiten duela
gure etsipenaren zain ebakietatik.

Zenbat erloju ditun trenbideak...
Tik-tak...
Heriotza dezimalki ezarriaren eusleak,
Zenbat erloju...
Zenbait nostalgia.

Tik-tak...
Herensugea
Bakardadera suizidatzen
orratzen urkabe publikoan...

Argitasunaren soka aspaldi etena,
ilusioak leihatilen kontra zapalduak,
pareteko txikleetan itsatsitako amodioak...
Orratzen urkabe publikoan.

Denbora urratuz doa
segundu minberak astinduz...

HEMEN EZ DAGO AMETS EGITERIK.

Nork bat bilatu diote hil aditzari,
bezero bat

hormako paper zikineko telefono zenbakiari,
herensuge bat
zabortegiko panpina elbarrituari.

EXIT alargunaren hasperena,
larrosa erorien erresuma ahula,
poemak pistoleroen gisara
zuloak egin dizkiote...
trenbideko urkabe publikoan.

Goazen,
hara non ez den ezagutzen urkabeen ikararik,
heriotza zeremonia bat besterik ez den.

Tik-tak...
Argia itzali behar izan duen tren.
Gaur gauean, amets bat izan dut.